



5. BULETINA

2009ko abendua

INMA ikerketako parte-hartzaileok, agur:

Hasteko, INMA-Gipuzkoa lan-taldekook eskerrak eman nahi dizkizuegu proiektu honetan inongo interesik gabe parte hartzeagatik, eta hasiera-hasieratik proiektuarengan jarri duzuen konfiantzagatik.

Gaur egun, bi urteko haurren garapen neuropsikologikoa ebaluatzen ari gara, eta familia-ekologiaren zenbait aspektu baloratzen. Laster bidaliko dizkizuegu bi ebaluazio hauei buruzko txosten pertsonalak.

Buletin honen xedea da, zuei, sortu berri den INMA-proiektuaren web orriaren berri ematea. Bertan INMA-proiektuari buruzko informazio zehatza aurkituko duzue (helburuak, ikerketa-eremuak, prentsako argitalpen eta berri laburrak, osasun-aholkuak, parte hartu duten erakundeak, e.a.); eta baita, ikerketa-eremu ezberdinetan jasotako emaitza zehatzak ere, oraindik oraino argitaratuak.

Hau da web orri horretara iristeko bidea:

<http://www.infanciaymedioambiente.org>

Gogoan izan edozer kontsulta egin nahi badiguzue, zuen esanetara gaudela; galdetu lasai ondoko helbide elektronikoa honetan:

Gipuzkoa.INMA@gmail.com



**Jai Zoriontsuak INMA-
Gipuzkoa lan-taldekoen
izenean!**

Ondoren, web orrian aurki daitezken edukien laburpentxo bat egin dizuegu:




INMA proiektuaren aurkezpena



Nola eragiten dio kutsadurak osasunari?



Ikerketa-eremuak



Parte hartzen duten erakundeak



INMA proiektuaren aurkezpena



INMA-proiektuaren diseinua eta helburuak definitu dira, eta zuzendaritza batzordeko kideak eta ikerketa-eremu ezberdinetako ikertzaileak aurkeztu. Aldizkari zientifikoetan eta komunikabideetan argitaratutako hainbat ikerketa-eremutako emaitzak eskuratzeko modua dugu.

Nola eragiten dio kutsadurak osasunari?



Zenbait kutsatzaile deskribatu dira, airean, uretan eta elikagaietan aurkitzen direnak; eta haurraren garapeneri nola erasaten dioten, eta horietatik babesteko dietak eta edoskitzeak duten egitekoa ere azaldu dira. Besteak beste, aipatu da, ingurumena babesteko zenbaterainoko garrantzia duten ingurumen-hezkuntzak eta herritarrek informazioa libreki eskuratu ahal izateak.

Ikerketa-eremuak



Honako hauek definitu dira: ikerketa-eremuen esparru geografikoak, eremu bakoitzean ikerketak egiten hasitako data, eta etapa bakoitzean erabilitako protokoloak; eta beste honako hauek bildu: aldioro gurasoi bidalitako informazio-buletinak eta eremu bakoitzean jasotako emaitzak.

Parte hartzen duten erakundeak



INMA-ikerketan parte hartu duten erakunde guztiak aurkeztu dira.

Ikerketa finantzatu dutenak:

Udalak: Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga; KUTXA; Ikerketa Sanitarioen Funtza, (Zientzia eta Berrikuntzen Ministerioa); Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia.